

# #07

# ITZULTZAILEAREN EGINKIZUNA UNIFORMETASUN LITERARIOAREN AURREAN<sup>1</sup>

**Carolina Moreno Tena**

*Universitat de Barcelona*

carolina.moreno@ub.edu

**Aipatzeko gomendioa** || MORENO TENA, Carolina (2012): "Itzultzailearen eginkizuna uniformetasun literarioaren aurrean" [artikulu linean], 452°F. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 7, 14-23, [Kontsulta data: dd/mm/aa], < [http://www.452f.com/pdf/numero07/07\\_452f-mono-carolina-moreno-tena-eu.pdf](http://www.452f.com/pdf/numero07/07_452f-mono-carolina-moreno-tena-eu.pdf) >

**Ilustrazioa** || Gabriel Barbabianca

**Itzulpena** || Iزارo Arroita | Ibai Atutxa

**Artikulu** || Jasota | Argitaratuta: 07/2012

**Lizentzia** || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkatarizarako - lan eratorririk gabe



**Laburpena** || Itzultzaileak egiten duen lana, sarri, erabakigarria da eta obra jakin baten zori literarioan eragina izan dezake. Teoria literarioak eta literatura konparatua eragin horiek ikertzen eta sistematizaten saiatzen dira. Artikulu honen autorearen helburua sistema literarioan itzulpenak duen garrantziari buruzko ikerketan sakontzea da. Artikulu honek balizko itzulpen bat justifikatuko luketen arrazoiek testuinguru kultural eta literarioan eragiten duten oreka eta desorekak aztertuko ditu. Horretarako eremu eskandinaviar eta katalanaren arteko erlazioak analizatuko ditu.

**Gako hitzak** || Itzulpengintza | Itzultzailearen eginkizuna | Literatura eskandinaviarra | *Weltliteratura*.

**Summary** || The role of the translator can in many cases be determinant to and have consequences on the literary fame of a certain work. Literary theory and comparative literature try to analyse and systematise these, emphasizing the importance of the study of the relevance of translation for a literary system. This article deals with the balances and imbalances that take place in a cultural and literary context, caused by decisions that justify the need for a certain translation, by analysing the relations between the Scandinavian and Catalan fields.

**Keywords** || Translation | Role of the translator | Scandinavian literature | *Weltliteratur*.

## 0. Sarrera

Dela bokazioagatik, dela kidesan estilistikoagatik; diruagatik edo ogibideagatik, itzulpengintzak aurretik lekutzea eskatuko du itzuliko den lanari begira. Itzultzailearen lana beraz, sarri, erabakigarria da eta obraren zori literarioan eragina izan dezake. Teoria literarioak eta literatura konparatua eragin horiek ikertzen eta sistematizatzen saiatzen dira. Sistema literarioan itzulpenak duen garrantziari buruzko ikerketan sakonduko da horrela. Artikulu honek balizko itzulpen bat justifikatuko luketen arrazoiek testuinguru kultural eta literarioan eragiten duten oreka eta desorekak aztertuko ditu.

1984ko abuztuaren 17an, August Strindberg Parisera iritsi zen besopean zeraman frantsesez idatzitako artikulu fardela prentsa paristarrean argitaratzeko asmoz. Berrogeita bost urterekin eta familia ezin mantendu, esperantza guztiak Paris hiri handian ezarri zituen. Urte bete lehenago *Fröken Julie* eman zuten lehendabizikoz Théâtre Libren André Antoineren zuzendaritzapean, eta *Fordringsägare* Théâtre de L'Œuvre. Strindbergek Frantziako hiriburuan atek zabaltzen ari zitzaizkiola ikusten zuen, eta bazekien horrek konkista literarioa zekarrela. Paris konkistatzea Europa konkistatzea zen. Baina hiri handira iristean, intelektueltasun frantsesa dardaraziko luketen artikulu horietako batzuk bakarrik argitaratzea lortu zuen. Hala ere, hura garaipen martxaren hasiera besterik ez zen izan: urte bereko udazkenean, Albert Languen editoreak *Le plaidoyer d'un fou* argitaratu zion, zuzenean frantsesez idatzi zuena. Eta benetako arrakasta *Fadrenekin* etorri zitzaion, estreinakoz Théâtre de L'Œuvre egin zutena, urte hartako abenduan.

Hala ere, arrakastak arrakasta, hor bukatu zen balentria heroikoa eta hasi, beranduago, «*Inferno* krisia» deituko zena. Hiru urte beranduago izenburu bereko eleberria argitaratzearekin zehaztu zen garaia hain zuzen ere. *Inferno* zuzenean frantsesez idatzi zuen Strindbergek, itzulpen suediarra lehenago argitaratu bazen ere<sup>2</sup>. Strindbergek *Inferno* Lunden idatzi izatea, Parisen ordeztu, eta gainera frantsesez egitea, ez dira xehetasun hutsalak. Badakigu idazle suediarrek obra bat frantsesez idazteko asmoa zuela, gero suedierara itzultzeko. Hau da, bazekien bere lan literarioak *bisibilitatea* izan zezan Europan (Pascale Casanova (2002: 7-20) terminoetan) «hizkuntza menderatzaile» baten idatzi behar zuela, eta hizkuntza hori soilik frantsesa izan zitekeen. Horrek Casanovak deskribatzen duen –eta espazio literarioa definitzen duen– ospea lortzeko borroka horretan landu beharko zukeen. Frantsesak, literatura unibertsaldun hizkuntza literarioak, Strindbergek hainbeste bilatzen zuen lekune unibertsala eman beharko lioke bere lanari. Ondoren, Suediako nazio-mugen baitan guda irabaziko zukeen, hots, etxean lortuko luke ospea. Hori dela eta, frantsesera itzularazteak, edo zuzenean

---

## OHARRAK

1 | 452°Fn katalanez argitaratutako artikulu originala, jatorriz, International Association of Scandinavian Studiesen 28 kongresuko agiritan suedieraz argitaratutako testu bat da. Eskuragarri dago hemen <http://nile.lub.lu.se/ojs/index.php/IASS2010>.

2 | *Inferno*ren itzulpen suediarra 1897ko azaroan argitaratu zen eta frantsesezko jatorrizko bertsiola 1898an.

frantsesez idazteak bisibilitatea eman beharko ziokeen, nazioarteko espazio literarioan, idazle periferiko bati. Strindbergen obrari literario estatutua eman beharko ziokeen.

## 1. Strindbergen *Inferno* kasua

*Inferno* aipatutako prozesuren adibide ona da: Strindbergekin ez zuen soilik eleberri bera bi hizkuntza ezberdinetan pentsatu, aldi berean, ziur zegoen bi bertsioek estrategia narratibo ezberdinak jarraitu behar zutela, irakurle publiko ezberdinei zuzenduta baitzeuden. Hau da, bi harrera eremu ezberdinei zeuden bideratuta testuak, zehazkiago jarrita testuinguru literario suediarri eta frantsesari. Pierre Bourdieuren (2002: 8) teoriei kasu egiten badiegu «Les conditions sociales de la circulation internationale des idées»en, Strindberg jakitun izan behar zuen harrera eremuak duen funtzio erabakigarriaz, literatura eta pentsamendua transmititzeko orduan.

Harrera eremu jakin baten baitan, atzerriko lanari buruz egiten den irakurketa ez da berezkoa, asmoz jositakoa eta interesduna baizik. Gaizkiulertuetara edo desitxuratutako irakurketetara eraman dezake, batez ere zirkulazioa jatorrizko edo produkzio eremurik gabe gertatzen denean. Barne tentsioak eragin ditzake harrera eremuan bertan: indarrean dagoen egoera literarioaren gainean boterea mantentzen saiatzen diren forma nazionalen eta atzerriko formen artean, eremu horretan sartzen saiatzen diren heinean jarrera iraultzaileak idazle, editore, itzultzaileek gauzatzen dituzten itzulpen erabakigarrien sorkuntza lanari esker.

Strindbergekin *Inferno* frantsesez idatzi eta suedierarako itzulpena agindu egiten badu, finean badaki bi eleberri ezberdinez ari dela pentsatzen, bi hizkuntza literario ezberdinetan idatzi direnak. Bi irakurle publiko ezberdinengana iristeko asmoa izango dute, eta aldi berean, bi tradizio literario ezberdinen baitan kokatuko dira. *Inferno* eleberri okultista gisa aurkeztuko da Frantzia, Suedian aldiz, konbertitze erlijiosoaren eran. Barne egituragatik ere ezberdinak izango dira Eleberriak. Era berean, ez da ahaztu behar helburu bakarra ez zela ahalik eta irakurle kopuru handiena lortzea. Izan ere, benetako guda Suedian eman zen. Strindbergen helburua, *Röda rummeten* argitalpenaz geroztik, hizkuntza literario suediar berria sortzea zen. Xedea forma berriak aurkitzea zen, eta generoak eraberritzea atzerriko ereduetatik abiatuta (batez ere, Balzac eta Flauberten prosa frantsesa jarraituko zuena). Hor dugu Bourdieuk azaltzen duen norbere eta inorena denaren arteko barne tentsioen adibidea, nazioaren narratiba eraldatzea ahalbidetzen duena. Strindberg Eskandinavian (eta baita kanpoan ere) ospetsu bilakatu bazen, hain zuzen ere, egin zuen apostutik arrakastatsu irten zelako

izan zen: narratiban eta antzertian hizkuntza literario suediarra egiatan eraikiberritu zuelako. Strindbergen nazioartekotzeaz eta Europako Iparraldeko periferiaren unibertsalizazioaz, puntu horretatik aurrera has gaiteske hitz egiten.

Balio literarioari buruzko boterearengatiko borroka kontrako bidean ere gertatzen da: idazle suediarren antzerki lanak itzuli eta frantsesez antzeztu ziren Parisen. Strindbergen era berean, Ibsen eta J. P. Jacobsenen lanek Norvegiako eta Danimarkako mugetatik haratago arrakasta izan zuten. Europan mende aldeketa eta Modernitatearen proiektua garaiko espirituak arnasten zuen erradikaltasun eta haustura giroaren gainean eraiki zen. Giro horrek kutsatu zuen Strindbergen lana bezala, kutsatu zituen Ibsen, Hamsun edo Kierkegaardenak. Baina fenomeno hori ezin da erdiguneetako eta periferietako literaturen hartu-eman soil gisa deskribatu. Michel Espagneek (2006: 5-8) adierazten duen bezala, kultura eta pentsamenduaren transferentzian oinarritutako espazio europar-unibertsal komunaren eraikuntzaz ari gara. Ez da balio literarioari buruzko borroka gertatzen den espazioa izango, ideien zirkulazioak eragindako pentsamendua baizik.

Joan Maragallek urte horietan «la llum ve del Nord» idatzi zuen. Ez da zaila asmatzea izenburuko hitzokin esan nahi zuena asmatzea: idazle katalanek Europako Iparraldeko herrialdeetarantz begiratzen zuten Ibsen eta Strindbergekin gorpuzten zuten iraultza sozial eta literarioa inportatzeko asmoarekin. Atzerriko ereduak bilatzen ziren naziokoek aurka egiteko, eta garai berriek eskatzen zuten aldaketa burutzeko. Modernitateak zekarren eraldaketa prozesutik kanpo gelditu nahi ez bazuten egin beharreko aldaketak ziren horiek. Azken batean, Strindbergen «Esplanadsystemet» poemak «derribar para que entre el aire y la luz» oihukatzean proposatzen duen beharrezana berbera da. Idazle katalanek atzerriko idazleen lanetan aukerak bilatzen zituzten kolokan jartzeko nagusi zen statu quo sozial eta literarioa. Ibsen eta Strindbergen obrak goiburu berdinarekin itzuli ziren: «A èpoques novas, formes novas», idatzi zuen Jaume Brossak 1892an (Brossa, 1969: 20).

Baina Strindberg eta Ibsen ez ziren zuzenean Stockholm edo Christianiatik iritsi. Paris ezarri zen Europako Iparraldeko eta Kataluniako kulturen gurutzagune gisa. Berrito, frantsesa zen komunikazio hizkuntza. Paris zen Modernitatea elkarretaratu zen hiriburua, eta frantsesa modernitate hori, haren ikuspegi berria eta mundu ikuskera literarioari adierazten zen hizkuntza. Literatura frantsesak idazle katalanengan eragin nabarmen eta erabakigarria izan zuen. Hain da horrela, klasiko katalan izendatzen ditugun horiek literatura frantsesaren adarretako bat bezala definitzen direla sarri. Hala ere, egia dena da obra «frantsestu» horrek literatura katalanaren egungo bizkarrezurra osatzen duela. Ibsen eta Strindbergen

antzerkiak ere modernismo katalanean eragina izan zuen.

Garai horretan atzerriko lanen itzulpen lan indartsua hasi zen, Europako klasikoak literatura propioari gehitzeko helburua zuena. Literatura unibertsal izendatutako horretara hurbiltzeko saiakera izan zen. Itzulpena ez zen soilik erabakigarria izan, erdiguneko lekunea okupatu zuen literatura katalanean, batez ere XX mendeko lehenengo erdian. Fenomeno horrek bat egiten du Itamar Even-Zoharrek edo Pascale Casanovak beren teorietan, funtzio determinantea ematen diotenean itzulpengintzari sistema literario eta nazioarteko espazio literarioan. Ostera, Bourdieuk aipatzen dituen barne tentsioekin ere bat etorriko da: zergatik inportatu ziren Ibsen eta Strindberg soilik partzialki —antzerki lanak bakarrik— eta baztertu ziren eleberriak, *Inferno* kasu? Zergatik ez ziren J. P. Jacobsenen eleberriak itzuli? Ez dago esan beharrik erabakietako batzuk testuinguru literario katalanetik abiatuta hartu zirela. Literatura katalan modernista ikertu nahiko bagenu, argi dago zer itzuli zen begiratu beharko genukeela. Baina batez ere hartu ziren erabakiak justifikatuko lituzkeen erantzuna aurkitu beharko genuke, hau da, zeintzuk izan ziren aukeratzeko irizpide eta nondik-norakoak azalduko lituzkeen erantzuna. Beste hitz batzuekin esateko, nola irakurri ziren aukeratutako obrak eta zein harreman ezarri zituzten horiekin idazle katalanek.

## 2. Mankell eta Larsson kasua

Ehun urte beranduago, Europako Iparraldetik heldutako bigarren korrante literarioan murgilduta gaude bete-betean: nobela beltz eskandinaviarrez gainezka daude liburu dendak. Katalunia berriz iparraldera begira dago, eta liburuaren gaineko zerrendak «nobela beltz eskandinaviarra» badio, erosi egiten da zalantzarik gabe. Europako Iparraldeko literatura nazioartekotze prozesuaren bidez sartu da berriz indarrean, eta munduko espazio literarioan leku egin du genero beltza eraberritzean. Irakurle eta argitaratzaile katalanak nobela beltzaren gose dira, eta Mankellen eta Stieg Larssonen liburuek erakusten diguten gizarte suediarrek ez du zerikusirik azken hamarkadetan sortu ditugun aurreiritzi eta estereotipoekin. Baliteke Kataluniako gizartearen halako ongizate egoera batera hurbiltzen hasi dela-eta, irakurleek txundituta baina atseginez ikustea eredu suediar enblematiko horrek ere badituela arrakalak: edo haiek ez daude hain ongi, edo gu ez gaude hain gaizki... Ondorio horretara hel gaitzke saiatzen bagara aztertzen zergatik diren hain zuzen ere Kurt Wallander eta Lisbeth Salander pertsonaiak (eta gizarte suediarra oro har) irakurle katalana gehien erakartzen dutenak, eta ez trama kriminala bera.

Baina zerbait aldatu da XX. mende hasieratik. Sistema literario

---

honetako eragileek ez dute forma literario berririk bilatzen; asko erlatibizatu da argitaratzaileek, idazleek edo itzultzaileek zuten aurkitzaile rola, orain inoiz baino gehiago errentagarritasuna eta etekin ekonomikoa nagusitzen baitira. Argitaratzaileek Europako Iparraldetik datorren guztia erosten dute, baina aukera egin gabe, bereizi gabe, egilea eskandinaviarra delako soilik, eta nobela beltz eskandinaviarra oso ongi saltzen delako Europan (ez da bereizketarik egiten ezta Eskandinaviako hizkuntza eta literatura ezberdinen artean ere!). Argi esanda: interes komertziala nagusitzen da balio estetikoaren kaltean.

Horregatik, argitaraldi handien tiraniaren menpean, argitaletxe talde handietako editoreak formula malgu baten bila dabiltza, horrelako nobelak ahal bezainbeste hizkuntza europarretara itzuli eta salmentak handitzeko, irakurleria zabaldua. Hala zioen Bourdieuk, idazle malguk nazioen arteko mugak erraz gainditzen dituztela azaltzean. Hala, generoekin analogia egin genezake, nobela beltza ezin egokiagoa baita leku guztietan funtzionatzen duten formula finkatuetatik abiatuta idazteko. Fenomeno honek eskatzen du ahalik eta argitaletxe atzerritar gehienei saltzea nobela,aldi berean itzul dezaten ahal bezainbeste hizkuntzatarata eta denak batera atera daitezen merkatura. Ondorioetako bat da argitaratzaile hauentzat irakurle guztiak berdinak direla, kontuan hartu gabe zein hizkuntza literariotan irakurtzen duten edo zein literaturari dagokion hizkuntza hori.

Honek argituko luke behar bada zergatik itzuli zen Katalunian Stieg Larssonen trilogia ingelesa edo frantsesa bezalako komunikazio hizkuntza nagusietatik, eta ez suediarretik. Harrigarria da, azken hamarkadetan dirua eta denbora eman ostean zuzeneko itzulpengintza sustatzen (XX. mendearen hasieran egin zen lana gutxietsi gabe); ahalegin handia egin ondoren atzerriko literatura itzuliak corpus esanguratsua osa zezan. Itzultzaileak hizkuntza eta literatura eskandinaviarretan trebatu ostean, editore hauek erabaki dute komunikazio hizkuntzak erabiltzea berriz. Garbi dago frantsesak galdu egin duela XIX. mende amaieran zuen ospea, eta gaur egun arrazoi ekonomikoak bakarrik daude erabaki honen atzean. Egiaz, badirudi kontua dela merezi duen ala ez denbora eta dirua ematea suediarretik katalanera itzultzen, batez ere argitaratzaileak alde batera uzten badu literatura mota honen balio estetikoak. Nobela beltz eskandinaviarra argitaratzen duenak pentsa lezake denbora eta dirua alferrik xahutzea dela itzulpengintzan zehatz, fidel eta arduraz jokatzeara.

Bestalde, egoera azal genezake fenomenoak *bestseller*-aren dinamikari lotuaz, eta areago, esan genezake Kataluniak egoera bialia lezakeela Europako Iparraldeko literaturak ezagutzeko eta horiek eskaini diezaguketena irakurtzen hasteko: narratiba eskandinaviarrak

---

(norvegiarrak eta daniarrak batez ere, baina baita islandiarrak ere) indar hartu du bere ezaugarri tradizionalen mugak esploratzen: kontatzearen artea, izaera fantastiko eta alegia asmatzailea, eta gizakiaren eta gizarte antolaketaren arteko harreman tirabiratsuekiko kezka; ezaugarri horiek definitzen dute neurri handi batean Erdi Aroko saga islandiarra genero literario gisa.

Baina kontua ez da hain sinplea: ez dira asko izan irakurle katalanen artean arrakasta edo zortea izan duten idazle eskandinaviarrak. Beti dago gainditzen zaila den arrakalaren bat, eta ez da distantzia kulturalagatik, eragile (kritikari, irakasle eta editore) gutxi daudelako baizik literatura hauek ongi ezagutzen dituztenak eta beraz gai direnak eremu literario katalanean sartzeko, jatorrizko eremua azalduaz. Dauden eragile apurrek, itzultzaileek bereziki, aurkitzaile rola galdu dute. Beste mundu ikuskera batetik sortutako literatura bat ongi ezagutzen ez denean, eta bereziki literatura horrek adierazpide ezberdinak esploratzen dituenen, forma ezberdinak, artearen inguruko ikusmolde ezberdinak, irakurketa okerra edo desitxuratua egiteko arriskua dago (hau ez da negatiboa beti), edo irudituko zaigu ez dugula esanahi osoa jasotzen. Kasu honetan, ulertzen ez duguna da hain zuzen ere bereziki eskandinaviarra dena eta, gainera, literatura europarra tradizio eskandinaviarraren bidez geureganatzeko aukera galtzen dugu, hau da, unibertsala partikularraren bidez ulertzeko aukera. Zentzu honetan da «arriskutsua» Europako Iparraldeko literaturek eskaintzen digutenetik nobela beltza bakarrik itzultzea.

Hori gutxi balitz, badirudi argitaratzaile katalanek erabakitze ahalmena galdu dutela: atzerriko literatur lanak nobedadeen sailera iristen dira gaztelerazko itzulpenarekin batera argitaratzeko, kostuak eta arriskuak murrizte aldera. Lotuta daudela diote. Erabaki guztiak arrazoi ekonomikoen arabera direla frogatzen du honek ere.

la paradoxikoa da: orain inoiz baino errazagoa dirudi literatur lanak irakurle gehiagorengana heltzea, hizkuntza aukera zabalago batetik; sekula baino errazagoa dirudi hizkuntza gehiagotatik hizkuntza gehiagotara itzultzea, handiak nahiz txikiak izan. Orain, ospea lortzea ez du erabat baldintzatzen komunikazio hizkuntza batera itzultzeak, ingelesera zehazki (Casanovak esan arren oraindik ere komunikazio hizkuntza frantsesa dela); aitzitik, egileak nazioarteko espazio literarioan arrakasta lortzeko erabakigarria da zenbat hizkuntzara itzultzen den. Azken bi hamarkadetan, *Translation Studies* direlakoek gero eta leku garrantzitsuagoa dute Literaturaren teorian eta Literatura konparatuan, eta Goetheren *Weltliteratur* kontzeptua berritzeko eta bultzatzeko saiakera guztiek aitortzen dute itzulpengintza erabakigarria dela sistema literarioan. Eta hala ere, badirudi une honetan literatura unibertsala hizkuntza literario bakarrean idazteko joera nagusitu dela (malgutasun handikoa, nazioarteko mugak gainditu eta irakurle gehiagorengana iristeko gai



dena), eta aldi berean itzulpengintzak zeukan lekua eta balioa galdu duela. Areago, esan genezake literaturak halako uniformetasun batera jotzen duela, Erich Auerbachek zioen bezala «Filologia de la Weltliteratur»en 1952an: «Nuestra Tierra, que es el mundo de la *Weltliteratur*, deviene cada vez más pequeña y menos diversa. La *Weltliteratur*, sin embargo, no hace referencia sencillamente a eso que es común y humano general, sino a estos factores como elementos de la fecundación recíproca de la diversidad» (2005: 114).

Beste era batera esanda: literaturaren zirkulazioa atzerriko literaturari buruzko gaizkiulertuetan eta irakurketa interesatuetan oinarritzen da; horiek, aldi berean, literatura nazionalak osatzeko prozesuan laguntzen dute. Beraz, besteren literaturatik abiatuta, norberarenaren etorkizunaren alde lan egiteak hurbilduko gaitu Goethek *Weltliteratur* deitzen zuen horretara.

## Aipatutako lanak

- AUERBACH, E. (1952): «Philologie der Weltliteratur» en Musch, W. Y Staiger, E. (eds.), *Weltliteratur. Festgabe für Fritz Strich zum 70. Geburtstag*, Berna: Francke, 39-50. (trad. catalana de Carolina Moreno Tena (2005): "Filologia de la *Weltliteratur*", *L'Espill*, 21, 117-126.
- BOURDIEU, P. (2002): «Les conditions sociales de la circulation international des idées», *Actes de la recherche en sciences sociales*, 1, 3-8.
- BROSSA, J. (1969) *Regeneracionisme i modernisme*, ed. Joan-Lluís Marfany, Barcelona: Edicions 62.
- CASANOVA, P. (1999): *La République Mondial des Lettres*, Paris: Seuil.
- CASANOVA, P. (2002): «Consécration et accumulation de capital littéraire: la traduction comme échange inégal», *Actes de la recherche en sciences sociales*, 1, 7-20.
- ESPAGNE, M. (ed.) (2006): *Le prisme du Nord, Pays du Nord, France, Allemagne (1750-1920)*, Tusson: Du Lérot.